



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko abenduaren 21a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena erretiratzea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Proposamena erretiratzea (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Proposamena erretiratzea (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean. Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari eta deritzo ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon. Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza publikoak eraikitzeko egutegi bat proposa dezan Nasuvinsaren bitartez "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikoan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen da deialdi bat onetsi dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera. Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkeztu dute (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziatioetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko baitu Estatuako Gobernuak Nafarroaren eskumen historiko eta berezkoak inbaditu izana Nafarroako udalen erabaki ekonomiko eta administratiboen kontrolari dagokionez. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak modurik irmoenean exijitzen baitio Nafarroako Gobernuari bete dezan Legebiltzar honen gehiengoaren borondatea eremu publikoko langileei dagozkien lansarien gainean. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen baitu preso nafarrei dagozkien giza eskubide guztiak errespetatzen. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita indarririk gabe utz ditzan paradoreen sarea berregituratzeko planak. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deklaratzeko baitu auzibideko tasak aplikatzearen aurka dagoela, eta uste du bidegabeak eta gizarte osoaren kalterako direla, pertsona askorentzat justizia eskurazina egiteaz gain. Eledunen Batzarrak onetsia (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, BPGarekiko zor-helburuak Estatuarekin hitzartzeko gaitasunari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Tuterako katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (15. or.).
- Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (15. or.).
- Galdera, jakitekoa noiz, non eta zer egingen duen Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios ospitalean egitekoak ziren ebakuntzak egiteko, Marisa De Simón Caballero andreak egina (16. or.).
- Galdera, 2013an berdintasun agenteak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (17. or.).
- Galdera, gure erkidegoko 50 toki entitate populatuenean zorpetze-mailari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, "Audenasa. Merkataritza politika" eta "Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa" kontusailei dagokienez, 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspeni buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (18. or.).
- Galdera, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabilzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (18. or.).
- Galdera, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspeni buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa, Galdera erretiratzea (20. or.).
- Galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonen ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa, Galdera erretiratzea (20. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena, erretiratu izanari dagokionez. Foru

Lege proposamena 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko Foru Lege proposamen hau erretiratu izanari dagokionez: "Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekaina-

ren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Foru Lege proposamena 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

PROPOSAMENA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkezturiko Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena, erretiratu izanari dagokionez. Foru Lege

proposamena 2012ko azaroaren 12ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean.

BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruñeko iparraldean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

2012ko maiatzaren 15ean, Iruñeko Iparraldeko Institutuko Batzordeak, non Biurdana BHLari atxikitako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetako gurasoen elkarteak ordezkatuta baitaude, parlamentu-taldee eskatu ziren bi puntu-ko mozio bat aurkezteko, batzorde honek institutuaren egungo eta etorkizuneko okupazioari buruz eginitako txosten bat aurkeztu ondoren eta Biurdana Institutuko Klaustroak aurkeztutako beste txosten baten berrespenarekin –azken horretan aipatzen dira, gainera, ikastetxeak dauzkan akatsak–. Hona bi puntu horiek:

Eskualdean bigarren hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitzea, 2013/2014 ikasturterako, Biurdanan datozen urteetan gerta daitekeen masifikazioa saihesteko.

Biurdana ikastetxeko akatsei konponbidea ematea.

Maiatzaren 15ean, Hezkuntza Departamentutik kontseilari jaunak proposatu zuen Biurdana zabaltzea, konponbide gisa. Eta hilabete bereko 30ean, Institutuko Batzordean konponbide hori berretsi zuten zuzendari nagusi Iñigo Huartek eta Azpiegituretako arduradun Teresa Ucarrek. Beren proposamena oinarritzeko, Biurdanako okupazioari buruzko datu batzuk aurkezten dizkigute, Hezkuntza Departamentuko Eskolatze Batzordeak prestatuak.

Ekainaren 19an, mozioa eztabaidatu eta bozkatu zen, eta akatsei buruzko puntua aho batez onetsi zen. 2013/2014 ikasturterako ikastetxe berria eraikitzearena, berriz, atzera bota zen (ratioaren handitzea eta talde berezi bat desagertzea direla-eta, urtebetez atzeratu da toki-arazoa).

Batzordean egiaztatu ahal izan genuen Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspena soilik 2019ra bitartekoa dela eta, antza denez, ez dituela aintzat hartzen Buztintxuriko eta Orkoiengo ikasleak; alegia, alde handia dagoela haien datuen eta gure datuen artean.

2012ko abuztuaren 30ean beste bilera bat egin zen, Hezkuntza Departamentuan, Azpiegituren zuzendari Teresa Ucarrekin eta Biurdanako orduko ikuskatzaile Joseba Ozkoidirekin, zeinei azalpenak eskatu baitzitzaizkien, Biurdanaren hurrengo urteetako okupazioari buruzko aurreikuspenak egiteko funtsezkotzat hartu ziren datuen gaineko aldea dela eta. Hezkuntza Departamentuaren Eskolatze Batzordean, biek ala biek uko egin zio-

ten datu horien gaineko erantzukizuna beren gain hartzeari. Orobat jakinarazi ziguten Departamentuak ez duela aurreikusten bi urtean ezer berririk eraikitzea eremu horretan, eta bertan behera utzi dutela handitze-proposamena ere.

Institutuko Batzordean Biurdanari atxikitako beste guraso-elkarte bat (Irurtzun) sartzean, eta Biurdana BHIari atxikitako ikastetxeetako matrikulazio datuak eguneratzean, Institutuko Batzordeak bigarren txosten bat egin zuen, zeinetan berretsi baitzen arazoaren hasiera urtebete atzeratzen zela, baina berriz ere detektatu ziren ikastetxe horrek etorkizun hurbilean izanen dituen espaziarazo larriak, 2021-2022 ikasturtera bitarteko aurreikuspen bat eginez gero.

Edozein modutan ere, Hezkuntza Departamentuaren beraren aurreikuspenak, motz gelditzen den arren denborari dagokionez (2 urte gutxiago) eta ikasleei dagokienez (ia 300 ikasle gutxiago),

37 unitate aipatzen ditu –24 ditu–, eta 945 ikasle –ikastetxea beteta dago, 570 ikaslerekin–. Argi dago eguno instalazioek ezin diotela aurre egin dagoen eskari guztiari.g

Horregatik guztiagatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu, eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu berri bat proiektu eta eraiki dezan Iruña iparraldean, eta ziurta dezan 2014/2015 ikasturtearen hasieran ikastetxe hori prest egonen dela eskolatze-eskari guztiari arian-arian aurre egiteko, DBHko 1. ziklotik hasita.

Iruñean, 2012ko abenduaren 10ean

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari eta deritzo ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon.

BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten baitio Cascanteko Santa Vicenta María ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari eta deritzo ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiaren menpe egon.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Cascanten ikastetxe berri bat eraikitze proiektua ez da berria. UPNko kontseilari batek UPNko alkate bati orain dela urte asko hitzemandatik sortu zen; orain dela sei urte, hain zuzen ere. Eta denbora honetan izan diren kontseilari guztiek hitzeman dute gauza bera. Ez dakigu zehatz-mehatz zer txostenetan oinarrituta promes egin duten, baina ikusita zein izan diren lau kontseilarien erabakiak, pentsatzekoa da haiek ere garbi zeukatela ikastetxearen egungo egoera ez dela egokia. Promesa ugari eta egintza gutxi. Izan ere, obra presaz planteatzen zenez beti, azken urteotan ez dira egin beharrezkoak ziren egokitzenak eta erreformak; horrenbestez, nabaria da egoerak ez duela hobera egin. Halatan, ikasturte honen hasieran, familiek beren buruari galdetu

diote ea ikastetxeak ikasleen eta bertan lan egiten duten profesionalen segurtasuna bermatzen ote duen. Gogorarazi beharra dago ezen bai familiek, bai udalak, bai ikastetxeko zuzendaritzak berak, denbora asko daramatela salatzen "segurtasun eta irisgarritasun arloko zenbait arairen urratze larriak, eta are espazio-arazoak ere, 2013-2014 ikasturteak aitzina". Guraso-elkarteak hainbat gutun bidali dizkie, eta azalpenak eskatu ere bai, Hezkuntza Departamentuari eta Udalari, eta erantzun gisa bakarrik jaso du Departamentuaren eta Udalaren arteko hitzarmen-proposamen bat, ikastetxe berriko obrak egiteko.

Hezkuntza Batzordeak ikastetxera egindako bisitan ikusi genituen ikastetxeko familiak instalazioei dagokienez orain dela asko salatzen ari diren gabeziak; hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna adierazten dio Cascanteko "Santa Vicenta María" ikastetxe publikoko hezkuntza-komunitateari, eta uste du ikastetxe horren segurtasunak ezin duela krisiari baldintzatuta egon.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hainbat azkarren jardun dezan, behin betikoz konpontze aldera Cascanteko "Santa Vicenta María" ikastetxeko langileen eta ikasleen segurtasun-arazoak, ikastetxean egon litekeen segurtasun gabezia oro ezabatuz eta, hortaz, Cascanten hainbat azkarren jar ditzan behar diren kalitatezko hezkuntza-azpiegitura publikoak.

3. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari gogorarazten dio ezin duela krisiaren aitzakia baliatu, kasu honetan duen erantzukizunari aurre ez egiteko, edo erantzukizun horren parte bat Udalaren gain uzten saiatzeko, are gehiago Nafarroako Gobernua udalen aurrekontuak murrizten ari denean eta beren inbertsioak eta zor bizia murrizteko gonbita egiten ari zaienean.

Iruñean 2012ko abenduaren 11n

Foru parlamentariak: Bakartxo Ruiz Jaso, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxebizitza publikoak eraikitzeke egutegi bat proposa dezan Nasuvinsaren bitartez "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikoan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxebizitza publikoak eraikitzeke egutegi bat proposa dezan Nasuvinsaren bitartez "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak xedatzen du –foru legea aldatu zen Hirigintza eta etxebizitzaren arloan urgentziazko neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Foru Legearen bidez– Nafarroan planteatutako urbanizazio berri guztiek mugatu beharko dutela plan bakoitzean definitutako azaleraren zati proportzional bat, Gobernuak etxebizitza publikoaren arloko politika egin dezan.

Erreserba horren –"Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikoaren– helburua da lurzorua eskuratzea etxebizitza lortzeko premia gorrian dauden eta salerosketa merkatuan sartzea zaila

edo ezinezkoa zaien populazio-sektoreentzat, hain zuzen ere sektore horien etxebizitza behar horri konponbidea emateko" (Zioen azalpena, XI).

Halere, gaur egun, erabili gabe dago azalera urbanizagarri horren zatirik handiena, Nafarroako Gobernuak ez baitu bete haren helburua. Egoera hori zeharo kontrajartzen zaio errealitate sozialari; izan ere, gero eta handiagoa da etxebizitza publikoaren eskaria, bere egungo taxuketan etxebizitzaren merkatutik baztertuta dauden pertsonentzat, zeinek gizarte-alkairuaren araubideko bizileku duin bat eskatzen baitute.

Bestalde, zenbait espekulazio-mugimendu hasi dira detektatzen alkairuko etxebizitzaren merkatuan, mota horren eskaria handitu izanaren eta baldintza ekonomiko eskuragarriko eskaintza eskasa izatearen ondorioz.

Hori dela-eta, NABAI parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez egutegi bat aurkez dezan, Nafarroako herri askotan "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikoan dauden erreserbetan etxebizitza publikoa eraikitzeke obrak egiteko, azken urteotan planteatutako urbanizazioen ondorioz. Egutegi hori

2013ko abendua baino lehen aurkeztu beharko da Parlamentuan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du "gizarte-alkairuko" etxebizitza gisa sailka ditzan lurzoru-erreserba horietan eraikitako etxebizitzak, eta etxebizitza horiek Nafarroako familia behartsuenen etxebizitza-eskubidea asetzerara bidera ditzan. Hartara, bete egingen da 35/2002 Foru Legean jasotako asmoa, eta, aldi berean, gerarazi egingen da alkairuko etxebizitzaren merkatuan espekulazio-burbuila bat sortzeko aukera.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du, baldin eta, ustez baliabide ekonomikorik ez daukalako edo borondate politikorik ez daukalako, ez badu planteatu nahi gisa horretako etxebizitzak eraikitzerik eta erreserbatutako lurzorua aprobetxatzerik, lurzoruak dauden udalei laga diezazkien etxebizitza horiek; betiere, "Lurzoru Publikoaren Foru Bankua" deiturikorako planteatutako erabilera-helburuak betetzeaz arduratu nahi badute eta planteatutako etxebizitzaren eraikuntza finantzatzeko baliabide ekonomiko nahiko dutela frogatzen badute.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen da deialdi bat onets dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera.

BILDU-NAFARROA, NAFARROA BAI ETA IZQUIERDA-EZKERRA PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa, Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentua premiatzen baita deialdi bat onets dezan, ikuskari lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzako Ikuskapenaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen ekainaren 30eko 80/2008 Foru Dekretuak ondokoa ezartzen du hirugarren xedapen gehigarrian:

"Hirugarren xedapen gehigarria. Ikuskatzaile lanpostuak aldi baterako betetzea.

Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoko plantillako lanpostu hutsak irakaskuntzako funtzionarioek beteko dituzte aldi batez, zerbitzu eginkizunetan, berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan izanik.

Irakaskuntzako funtzionario horiek Hezkuntzako Ikuskatzaileen Kidegoan sartzeko ezarri betekizunak bete behar dituzte.

Lanpostu huts horien adjudikazioan, lehentasuna emanen zaie betiere azken hautapen prozesuko oposizio fasea gainditu duten eta plazarik eskuratu ez duten hautagaiei, zerbitzuan behar diren lanbide eta hizkuntz profilekin bat etorriz".

Xedapen hori da ikuskaritzako lanpostuak aldi baterako betetzeari dagokionez aplikatu beharreko araua; hortaz, Hezkuntza Departamentuaren administrazio-egintzek horren arabera izan behar dute arlo horretan. Arauak exijitzen du berdintasun, meritu, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan izanik bete daitezkeen lanpostu hutsak aldi baterako betetzetik heldu diren zerbitzu eginkizunak. Ikusi dugunez, ordea, Departamentuak ez du prozedura hori baliatu zerbitzu eginkizunak 2012ko uztailan zuzenean esleitu dituenean.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta orain dela bi ikasturte agortuta dagoela Hezkuntzako ikuskatzaile lanpostuak aldi baterako eta zerbitzu eginkizunen araubidean betetzeko izangaien zerrenda, 2009ko deialditik heldu zena, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok:

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Arartekoaren iradokizunari jarraikiz, Hezkuntza Departamentua premiatzen du deialdi bat onets dezan, ikuskatzaile lanpostuak aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda bat osatze aldera, aurrerantzean sor daitezkeen beharrezan aurre egiteko.

Iruñean, 2012ko abenduaren 13an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez, Nekane Pérez Irazabal eta Marisa de Simón Caballero

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko abenduaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak eta paskinak jartzeari buruzkoak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliogabetu ditzan 2012ko urriaren 31n emandako jarraibideak, bidezko aldarrikapen politiko eta sozialei buruzko pankartak, afixak, paskinak eta bestelako mezuak jartzeari buruzkoak.”

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko abenduaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Gobernu Zentrala, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako Gobernua premiatzen dira zenbait neurri har ditzaten Iruñeko espetxe berriaren funtzionamenduari buruz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu beharrezkoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez horni dezaten Iruñeko espetxea, instalazioen erabilera optimizatzeko eta bere eginkizunak arrakasta-bermez garatu ahal izan ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu Espetxeetako Orientazio Juri-

dikoko Zerbitzuko legelariei baimena eman diezaieten asteko bost egunetan guardiak egiteko, erantzun ahal izate aldera egungo eskariari nahiz espetxeak har ditzakeen preso guztiak bertan daudenean egonen denari.

3. Nafarroako Parlamentuak Gobernu Zentrala eta Espetxeetako Zuzendaritza Nagusia premiatzen ditu Iruñeko espetxera ekar ditzaten espetxe zaharra beteegia zegoela-eta bere garaian handik eraman zituzten preso guztiak, eta abian jar ditzaten produkzio-tailerrak eta terapia-modulua.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernua eta Iruñeko Abokatuen Elkargoaren arteko egungo nahiz etorkizuneko hitzarmenetan kontuan har dezan legelari-kopurua areagotu beharra dagoela, espetxean preso daudenen gaur egun nahiz etorkizunean espetxeen arlo juridikoan izan ditzaketen beharrezko neurriak hartzeko.”

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2012ko abenduaren 14an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, krisiaren larria onartuta ere, aurrekontu-ahalegin bat egin dezan kulturaren arloan, 2013rako aurrekontuetan % 1era hurbildu ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kulturaren

Plan Estrategikoa aurkez dezan Legebiltzarrean, abenduaren 31 baino lehen, lehendakariaren inbestidurako hitzaldian eta Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren adierazpenetan behin eta berriro iragarri bezala.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du goraka berrikus dezan "udaletako kultur ekintzetarako laguntzak" izeneko kontusaila, halako moduan non, 2012ko deialdiko ordainketak jasotzeaz gain, 2013rako deialdia ere ongi ebatzi ahalko baita eta jarraitutasuna eman ahalko baitzaio bereziki landa eremuko Nafarroan beharrezkoa den kultur politikari."

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziazioetan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da legezko ekimena abian jar dezan, Nafarroako Parlamentua izate aldera Nafarroako herriaren ordezkari demokratikoa Estatuarekiko negoziazioetan"

Legebiltzarrak, 2012ko abenduaren 14an egin-

dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2012ko azaroaren 26ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatzen baitu Estatuko Gobernuak Nafarroaren eskumen historiko eta berezkoak inbaditu izana Nafarroako udalen erabaki ekonomiko eta administratiboen kontrolari dagokionez.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak errefusatzen du Estatuko Gobernuak Nafarroaren eskumen historiko eta berezkoak inbaditu izana Nafarroako uda-

len erabaki ekonomiko eta administratiboen kontrolari dagokionez; izan ere, ahalmen hori, betiere, Nafarroako Foru Komunitateari eta bere administrazio berekietako gobernu organoei dagokie".

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak modurik irmoenean exijitzen baitio Nafarroako Gobernuari bete dezan Legebiltzar honen gehiengoaren borondatea eremu publikoko langileei dagozkien lansarien gainean.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak modurik irmoenean exijitzen dio Nafarroako Gobernuari bete dezan

Legebiltzar honen gehiengoaren borondatea eremu publikoko langileei dagozkien lansarien gainean".

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen baitu preso nafarrei dagozkien giza eskubide guztiak errespetatzen.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentrala premiatzen du preso nafarrei pertsona gisa dagozkien giza eskubide guztiak errespetatzen".

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-
tzen baita indarririk gabe utz ditzan paradoreen sarea berregituratzeko
planak.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du indarririk gabe utz ditzan paradoreen sarea berregituratzeko planak, planteatuta-

ko enplegu-erregulazioko espedienteak –une honek izapidetzen ari dena– erretira dezan, Erriberriko paradoreko plantilla mantentzeko eta sarea pribatizatzearen ideia oro ekidin dezan".

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak
deklaratzeko baitu auzibideko tasak aplikatzearen aurka dagoela, eta
uste du bidegabeak eta gizarte osoaren kalterako direla, pertsona asko-
rentzat justizia eskurazina egiteaz gain.**

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"Nafarroako Parlamentuak deklaratzeko baitu auzibideko tasak aplikatzearen aurka dagoela, eta uste du bidegabeak eta gizarte osoaren kalterako direla, pertsona askorentzat justizia eskurazina egiteaz gain.

Nafarroako Parlamentuak deklaratzeko baitu auzibideko tasak aplikatzearen aurka dagoela".

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, BPGarekiko zor-helburuak Estatuarekin hitzartzeko gaitasunari buruzkoa.**MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, BPGarekiko zor-helburuak Estatuarekin hitzartzeko gaitasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Foru Araubideko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko ahozko galdera egin du, Foru Araubideko Batzordean izapidetzeko:

Gobernuko lehendakariordeak iragan azaroaren 21eko Ekonomia eta Ogasun Batzordean

gogorarazi zuen BPGari dagokionez ezarritako defizit-helburuak ez direla Estatuak Nafarroari ezarritako helburuak, baizik eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko akordio baten ondorio. Halatan, lehendakariordeak adierazi zuen une honetan ez dagoela defizit-helburu hitzarturik, ezpada Nafarroaren proposamen bat, Estatuarekin oraindik negoziatu eta itxi beharrekoa.

Aldi berean adierazi zen BPGari dagokionez ezarritako aurrekontuko defizit-helburua Estatuak Nafarroari inposatutako helburu bat dela esparru indardunaren arabera; alegia, Nafarroak ez daukala eragiteko inolako ahalmenik helburu horri dagokionez.

Hona galdera: Zer ahalmen du egiazki Nafarroak Estatuarekin zor-helburua hitzartzeko, baldin eta defizit-helburua Estatuak inposatzen badu? Urte bakoitzaren amaierako zorra ez al du, ba, neurri handi-handi batean ezartzen aldi horretan onar daitekeen gehienezko defizitak?

Iruñean, 2012ko abenduaren 5ean

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, Tuterako katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Tuterako katedraleko klaustroari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Kultura Batzordean ahoz erantzuteko.

Iragan azaroaren 17an, herrialdeko hedabide batek jakinarazi zuen Tuterako katedraleko klaustroaren parte bat itxi dela, teiltuan dauden arazo batzuk direla eta. Egun batzuk geroago, Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak jakinarazi zuen "beranduenez ere 2013ko martxoan edo apirilean" hasiko dela klaustro erromanikoa zaharberritzeko lehen fasea.

Kontuan hartuta obraren ondare-interesa, klaustroaren egoera gero eta okerragoa eta hartan esku hartzen hasteko datak aldiro aldatu direla, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

- Zertan da Tuterako katedraleko klaustroaren espedienteak?

- Zein da obra egiteko aurreikusitako egutegia? Zer fase ditu eta zein izanen da, gutxi gorabehera, azken kostua?

- Zer metodologia aplikatu nahi da zaharberritze-obra horretan?

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Iruñeko katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko katedraleko klaustroari buruzko espedientearen egungo egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás-ek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Iruñeko katedraleko klaustroari buruzko ondoko galdera aurkeztu du, Kultura Batzordean ahoz erantzuteko.

Nafarroako kultur ondare guztiko multzo bikainenetako bat da, zalantzarik gabe, Iruñeko katedraleko klaustro gotikoa. Hori dela-eta, arte-historialari askok azpimarratu ohi dute hori dela, hain zuzen ere, gure ondarean salbatzea premia-koena den pieza, hain da handia bere narriadura.

Bestalde, kontuan hartuta azken urteotan katedralean egindako esku-hartzea eta bertan egiten ari den "Occidens" erakusketaren gaurkotasuna –zeinetara sartzeko katedraleko osagairik nabarmenetako batetik igarotzen baita: Ate Ederra–, are beharrezkoagos ikusten da ahal den azkarren ekitea katedralaren zaharberritze konplexu eta gares-tiari.

- Zertan da Iruñeko katedraleko klaustroaren espedientea?

- Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako Departamentuak ba al du asmorik katedrala zaharberritzeko? Ezezkoan, adierazi arrazoiak. Baiezkoan, zein izanen lirateke egutegia, faseak eta gutxi gorabeherako kostua?

- Zer metodologia aplikatu nahi da zaharberritze-obra horretan?

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, jakitekoa noiz, non eta zer egingen duen Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios ospitalean egitekoak ziren ebakuntzak egiteko.

MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa noiz, non eta zer egingen duen Nafarroako Gobernuak San Juan de Dios ospitalean egitekoak ziren ebakuntzak egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak San Juan de Dios Ospitaleko kirurgia-jarduera % 50 jaitsi izanak berehalako ondorioak ditu; esaterako, abendurako aurreikusitako 120 kirurgia-operazio bertan behera uztea, nahiz eta gaixoei jada eginak zitzaizkien operatu aurreko probak, bai eta 2013ko urtarrilerako aurreikusitako 200 kirurgia-operazio inguru ere. Hori ikusita, ondokoa jakin nahi dugu:

Noiz eta nola egingen dira kirurgia-operazio horiek? Gobernuak zer plan dauka, San Juan de Dios Ospitalean urtean zehar egitea aurreikusitako 5.000 kirurgia-operazio horiek egiteko?

Iruñean, 2012ko abenduaren 11n

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, 2013an berdintasun agenteak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, 2013an berdintasun agenteak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzeko.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txema Mauleónek ondoko

galdera egin du, Gizarte Politiketako Batzordean ahoz erantzuteke:

Nafarroako Gobernuak iragarri zuen aurreikusita zeukala 2013an berdintasun agenteak kontratatzeke toki entitateentzako laguntzak mantentzea.

Hori guztia ikusita, ondokoa galdetzen dugu:

2012ko baldintza eta zenbateko beretan mantentzea aurreikusten al da? Zein egunetan dauka aurreikusita deialdia egitea?

Baldin eta exijitutako baldintzak edo zenbatekoa aldatzen badira, zeri zor zaizkio aldaketa horiek?

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, gure erkidegoko 50 toki entitate populatueneen zorpetze-mailari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, gure erkidegoko 50 toki entitate populatueneen zorpetze-mailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Gure erkidegoko 50 toki entitate jendetsuen zorpetze-mailaren zerrenda eskatzen dugu, ehunekoak eta zenbateko garbiak jasoko dituen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, “Audenasa. Merkataritza politika” eta "Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa" kontusailei dagokienez, 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspenei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Belrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, “Audenasa. Merkataritza politika” eta "Audenasaren akzioak erosteko maileguaren amortizazioa" kontusailei dagokienez, 2005etik 2011ra ordaindutako kopuruei eta 2012ko ekitaldiko aurreikuspenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Belrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako aurrekontu orokorretako ondoko kontusailen kargura 2005etik 2011ra bitarte ordaindutako zenbatekoak eta 2012ko aurreikuspena:

– Audenasa. Merkataritza politika.

– Audenasako akzioak erosteko maileguaren amortizazioa.

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Ana Belrán Villalba

Galdera, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, mailegu hipotekarioak ordaindu ezinik dabiltzan herritarrei aholku ematen dieten funtzionarioek Nafarroako Foru Berriaren 493. legean ezarritako bidea aholkatu ahal izatearen komenigarritasunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Sustapeneko kontseilari Zarraluqui jaunak idatziz erantzun dezan:

Hona galdera: Nafarroako Gobernua aztertzen ari al da ea komenigarria den beren hipoteka-mai-

leguak ordaintzerik ez izatearen drama bizi duten herritarrei aholku eta laguntza ematen dizkieten funtzionarioek haiei aholkatzea Nafarroako Foru Berriko 493. Legean ezarritako bidea balia deza- ten, balia ditzaketen balizko estrategietako bat bezala?

Iruñean, 2012ko abenduaren 12an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

Galdera, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspeni buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 1996tik 2011ra bitartean Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatiko ordainsari gisa ordaindutako kopuruei eta 2012rako aurreikuspeni buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Kontseilu Ekonomiko eta Sozialean parte hartzeagatiko konpentsazio gisa 1996tik 2011ra bitartean ordaindutako zenbatekoak eta 2012ko aurreikuspena. Zerrenda urteen eta entitateen arabera antolatua ematea eskatzen dugu.

Iruñean, 2012ko abenduaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuak *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko abenduaren 17an egindako bileran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patxi Leuza García jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak *Danza Escena* programa bertan behera uzteko arrazoiei buruzkoa, erretiratu

izanari dagokionez. Galdera hori 2012ko azaroaren 8ko 91. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko abenduaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonen ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarrak, 2012ko abenduaren 14an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen adieraztea jakinaren gainean dagoela Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkezturiko galdera, bizitokia Nafarroan duten pertsonen ematen zaien osasun laguntzari buruzkoa, erretiratu izanari dagokionez.

Galdera hori 2012ko azaroaren 19ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko abenduaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera